

2000KO UZTAILAREN 20AN, GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeia

HILABETEA: Uztaila

URTEA: Bi mila

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Lau (4)

MAHAIBURUA: Jon Jauregi Bereziartua

BILDUAK: Josi Insausti Mujika

Andoni Antxia Etxebarria

Arantxa Aseginolaza Azkargorta

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1- AURREKO AKTA

2000ko ekainaren 1eko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da inolako aldaketarik aurkeztu ez delako.

2- LEHEN ERABILERA KO BAIMENA.

Hirigintza batzordeak aldeko txostena eman ondoren, aho batez erabaki da Erauskin kaleko 7 zenbakiko eraikinari lehen erabilera ko baimena ematea.

3- KILOMETROAK

Ezagutzera eman da, Andramendi Kooperatibaren eskaera, Beasainen 2001. urtean kilometroak ospatzeari buruzkoa.

Eskaerak aho batez on eritiza jaso du, baina ibilbidea eta antolakuntza definitzeko garaian, antolatzaileek Udalari berri emango diote bien artean adostasun batera iristeko, jarraian udaltzainek hartu beharreko neurriak hartu ditzaten.

4- EUFALEBA

Alkate jaunak ezagutzera eman du, 2000ko maiatzaren 25ean Udalbatzan onartutako EUFALEBA akordioaren ondorioz, batzorde bat sortu dela, asteko ordutegia jeiste horrek udal-zerbitzuetan nola eragingo duen

aztertzeko. Lanaldia asteko 35 ordukoa izango dela dio, baina Besaingo Udalean lanorduen murrizketa, 2000. eta 2001. urteetan zehar egingo dela. Urte bakoitzean 40 orduko murrizketa izango da eta aurten 25 ordu gelditzen direnez, oportetatik kanpo, bi egun gehiago izango dira disfrutatzen.

5- MOZIOA

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA), biolentzia ekintza eta manifestaldiak salatzeari buruzko mozioa aurkeztu eta irakurri du. Testuak honela dio:

“Herri honen gehiengoak urteak daramazki eskubide kolektiboak errespetatu daitezela eskatzen, eta hamaika aldiz argi adierazi du norbanakoen eskubide guztien aurkako erasoak kontra dagoela.

Euskal Gizartea kapaz izan da bere borondatea adierazteko eta elkarrizketari ekiteko eskabideak gero eta argiago azaltzeko, eta ETAk su etena adierazi zuenean denontzako prozesu itsaropentsua hasi zen, nahiz eta gero, orokorrean, talde politikoak hori kudeatzeko gauza ez izan. Estatuko gobernuek jarrera inobilista hartu zuen, ez zuelako espetxeetako politika aldatu, eta ez zuelako gatazka politikoaren irtenbide elkarrizketaturik bilatu.

Dena dela, ETA-k su etena hautsi zuenean, gatazkari irtenbideak aurkitzeko hedatua zegoen usteak jipoi itzela jaso zuen. Talde armatuak berriro ere baztertu du giza eskubideen erasoak aurkakoa den herriaren borondatea eta agiri hau sinatu dugunok gune guztietan, bai erakundeetan eta bai gizarte mailakoetan, sustatu dugun bide politiko eta demokratikoen aldeko erronkaren aurka jarri da.

Aurretik esandakoarekin jarraituaz, eta hori gutxi balitz, gertatutako azken hilketek bizitza eskubidea den funtsezko eskubidea urratzea suposatzen dutelarik G.B.-ak honako erabaki hau hartzen du:

1.- Norbanakoaren eskubideak eta eskubide kolektiboak hausten dituzten ekintza eta adierazpen guztiak gaitzesten ditugu. Gure herriak bizi duen gatazka konpontzeko bide bakarra elkarrizketa, oinarri demokratikoak eta euskal gizartearen borondatea begirunez betetzea da, eta guk horren aldeko apustua egin dugu.

2.- ETArri biolentziazko jarduerak bertan behera uzteko exijitzen diogu, utz diezagula euskal hiritarroei eta horien ordezkariak askatasunean eta demokrazian jarduten.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 3 (EAJ/PNV-EA)
Aurkako botoak: 1 (EH)
Abstentzioak: 0

Beraz, Alkateak biolentzia ekintza eta manifestaldiak salatzeari buruz aurkeztutako mozioa onartu egin da.

Jarraian Alkateak honela esan du: ‘Gure taldearen iritzia, bizi dugun egoera politiko honetan, hauxe da hain zuzen ere: gobernu-elkarlana posible ez dela, giza eskubideak urratzen duten ekintzen aurkako posizio garbia ez dutenekin. Horren ondorioz eta bozketaren emaitza ikusirik, ebazpenak emango ditut, Andoni Antxia, EHko ordezkaria gobernu batzordetik kanpo utziz eta ingurugiroko batzordeburu kargutik kenduz. Aldi berean, euskara batzordeko eta udal-euskaltegiko lehendakaritza, Arrate Izagirre kendu egingo dut eta Patxi Plazaola izendatuko dut. Ingurugiroko batzordeburua berriz, neu izango naiz.’

Andoni Antxiaren (EH) erantzuna, gobernu taldea hausteagatik hau izan da:

“Joan den urteko ekainaren 13 Udal Hauteskundeetan ostean, EAJ, EA eta EH-k sinatutako Akordioak poz handia eragin zuen gure herrian. Asteetan zehar burutu ziren batzarrak eta izandako elkarrizketa aberatsaren ondorioz, Akordioa sinatu genuen.

Akordio honen bitartez, egunez egun gure herrian sortzen diren iradokizun, interes eta beharizanei modu bateratuan erantzutearen aldeko apustua egiten dugun herritarrontzat, garai berri bati ekiteko bidea zabaldu zitzaigun.

Akordio honek, lurraldetasuna, subirautza eta demokraziaren bidetik Euskal Herria eraikitzearen erronkari eusteko abiapuntu berria eskaintzen zigu, eta era berean, gure herrian buzi dugun gatazka politikoa irtenbide demokratiko eta elkarrizketatuaren bidez behin betiko gainditzeko lanerako tresna suposatzen zuen.

Sinaturiko Akordioaren balantzen baikorra egiten dugu. Ez gara horrela pentsatzen dugun bakarrak, iritzi berdinekoak dira talde politiko sinatzaileen hainbat kide eta ordezkari, eta adostutako akordioaren garapenaren zain dauden herriko hainbat talde eta elkarte. EUSKAL HERRITARROK-ek herriko gainontzeko talde politiko sinatzaile eta herritarren aurrean hartutako konpromezuak modu egoki eta zuzenean bete ditu.

Beraz, gure herrian sinatutako Akordioak zabaltzen duen bidea herritarron beharrianei erantzuteko biderik onena da. Euskal Herria demokraziara eta bake eskenatokira eramango duen marko politiko berriaren bila azkenengo hilabeteetan zabaldutako bideari egin ahal zaion ekarpenik eraginkorrena da.

Egunotan, eta Udal Akordioa dagoen herrietan, EAJ-k, ETA-ren ekintzen aurrean jarrera zehatza izan dezan EH behartu nahi du.

EH aldiz, behin eta berriz, eta ozenki adierazi du, egun bizi dugun gatazka politikoaz eta bere ondorioez egiten duen irakurketa. EH-k gure herrian suertatzen diren indarkeri adierazpen guztiak behin betiko gainditze bidean beharrezkoak diren baldintza politiko eta sozialak sortzearen aldeko konpromezu irmoa erakutsi du eta hor kokatzen ditugu, hain zuzen ere, udal Akordioak ere.

EAJ-k erabaki honen bidez, EAJ, EA eta EH-ren artean sinaturiko Akordioaren apurketa eragin nahi du. Era honetan, estatu espainoletik, PP, PSOE eta hainbat komunikabideren partetik datorkion presio politiko eta mediatikoari erantzun nahi dio, era berean presio hori EH-ri zuzenduz.

Erabaki honek, atzerapausu argia suposatzen du gure herrirako aurreikusitako eta adostutako neurri eta ekimenen garapenean. Neurri berean, Euskal Herriak marko berria eskura dezan egin beharreko bidean, atzerapausua da.

Gure ustez, Batera, Lizarra Garazi, Udalbiltza zein itun instituzionalen elkarguneetan modu bateratu batez burutu beharreko lanak, honako norabidea izan beharko luke:

- Euskal Herriari herri gisa dagozkion eskubide demokratikoak ukatu behin eta berriro gure herrian zabaldutako prozesua zapuzten saiatu eta gatazka politikoa ez aitortzearen aldeko apustua egiten dutenengana presio politikoa bideratzea.

- Gure indarrak modu positiboan erabiltzea, lan bateratuaren bidetik, munduko herrien multzoan Euskal Herria askea erdietsi nahian.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “EHk irakurri duena ez da mozioa , baizik eta adierazpenak dira. Hor esaten diren gauza askoekin ados gaude, baina nik aurkeztu dudana mozioa beste gai batetaz ari da.”

Jarraian Josi Insausti jaunak esan du Alkateak aurkeztutako mozioarekin ados dagoela, baina ez ondorioarekin eta ondorengo testua irakurri du:

“EUSKO ALKARTASUNAK, oinarrizko giza eskubideak, hala nola bizitzeko eskubidea, osotasun fisikoa eta adierazpen-askatasuna azken egunotan behin eta berriz urratzez ari direla ikusirik, ondokoa ADIERAZTEN DU:

1.- Giza eskubide banakoak eta taldekoak urratzen dituzten ekintza eta adierazpen guztiak salatzen ditugu. Horregatik, ETari ekintza armatuak behin-betiko bertan behera uztea eskatzen diogu, euskal herritarrak eta euren ordezkariak izan daitezten, askatasunean eta demokrazian, erabakiak hartuko dituztenak; era berean Estatuko Gobernuari euskal herritarren eskubideak onartzea eskatzen diogu, izan ere Euskal Herriak bere etorkizuna libreki eta demokratikoki erabakitzekeo eskubidea baitu, eta horrez gain espetxe-legeria betetzeko ere eskatzen diogu Gobernuari.

2.- Zera adierazten dugu;egoera politiko honek euskal gizartearen indar politiko guztien arteko komunikazioa eta lankidetzarako ahalegina eskatzen du.

3.- Horren ondorioz, Euskal Herriko alderdi politiko guztiei elkarrizketa eta negoziazio prozesu bat abiarazteko gonbidapena egiten die, gure gizartearen dagoen aniztasun ideologikoa onartuz eta errespetatuz, bazterkeriarik gabe, ez eta aukera politikoentzat inolako mugarik gabe.

4.- EUSKO ALKARTASUNAK zera adierazi nahi du halaber: alderdi politiko guztiek bide politikoaren eta demokratikoen alde egiteko konpromiso argiak eta indarkeria-adierazpen guztiak behin-betiko desagerrarazteko asmoak bakarrik ziurtatuko dute prozesua ondo bideratzeko baldintzak.

5.- Gure ustez Udal politika ez da alderdi politikoaren koiuntura edo estrategia jakin batzuetarako erabili behar. Udalen helburu nagusia, udal eta herritar bakoitzak dituen premia eta arazoei behar bezala erantzuteko lan egitea da. “Lehenago” jarreretara itzultzeak ez dio Euskal Herriko egungo egoerari inolako konponbiderik ekartzen, eta zatiketa sakontzen duen eta liskarra areagotzen duen atzerapauso bat besterik ez da.”

6- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bileran goizeko hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.